



**ZALDIBIAKO UDALA**  
**ALKATETZA**  
(Gipuzkoa)

## **HILETA ETA AZKEN AGURRAK**

2020ko martxoaren 26an Zaldibiako Udalak hilerriko jardueraren inguruan plazaraturiko Alkate dekretua indarrik gabe uzten du, martxoaren 29an estatuko osasun ministeritzak indarrean jarritako aginduak.

**Badakigu ez direla garai xamurrak eta gai garrantzitsuak direla uste dugu horren gordin arautu eta bere horretan uzteko.** Horregatik, momenturik latzenez **hildakoaren familiak babestu, goxatu eta elkartasuna adierazteko modu berriak asmatu beharrean gaude.**

Zaldibiako Udalak, herritar batek uzten gaituen egunaren arratsaldeko 19:30etatik aurrera, udal ibilgailuaren megafonian *Txoria txori* abestia jarrita agurtuko ditu.

Hala nahi duten herritarrei, etxetako balkoietan argiak agertzeko gonbitea luzatzen diegu. (Kandelak, linternak, ...)



Zaldibian, 2020ko apirilaren 1ean.

**EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA**  
**ZALDIBIAKO ALKATEA**